

WASTEHERO FUNTSEZKO JARDUERA

WasteHero proiektuak funtzionatzeko hainbat funtsezko jarduera egin behar dira. Jarduera hauek dira enpresaren balio-proposamena sortzeko eta mantentzeko ezinbestekoak: birziklapena errazagoa, adimentsuagoa eta motibagarriagoa bihurtzea.

Lehenik eta behin, ekoizpena da jarduera nagusia. WasteHero-k edukiontzi adimendunak diseinatu, ekoitzi eta kalitate kontrolatu behar ditu. Horien barruan sartzen dira sentsoreak, ikusmen artifizialeko sistema, konpartimentu modularak eta barneko osagaiak, erabiltzaileei hondakinak automatikoki sailkatzeko aukera ematen dietenak. Ekoizpen hau ezin da guztiz kanpora utzi, enpresaren *know how*-arekin lotuta dagoelako.

Bigarrenik, arazoak konpontzea eta mantentzea funtsezkoa da. Sistema teknologikoak ondo funtzionatu behar du, matxurak azkar konpontuz eta software eguneratzeak eginez. Jarduera hauek erabiltzaileen konfiantza mantentzen dute eta zerbitzuaren kalitatea bermatzen dute.

Hirugarrenik, plataforma digitalaren eta sareko jarduerak oso garrantzitsuak dira. Edukiontziak aplikazio batekin konektatuta daude, erabiltzailearen birziklapen-jarduerak erregistratzen dituzte eta puntu edo sariak ematen dituzte. Webgunea eta online denda kudeatzea, IoT sistemak udalekin konektatzea eta datuak jasotzea ere funtsezko jarduerak dira.

Azkenik, ingurumen-hezkuntza eta motibazioa indartzea garrantzitsua da. Ikastetxeetan edo komunitateetan birziklapenari buruzko hezkuntza-jarduerak egiten dira, eta auzo edo ikastetxeen arteko lehiaketak antolatzen dira. Jarduera hauek erabiltzaileen parte-hartzea eta komunitatearen konpromisoa handitzen dute.

Laburbilduz, lehentasunen arabera, funtsezko jarduerak honako hauek dira: edukiontzi adimendunen ekoizpena, plataforma digitalaren mantentzea, eta arazo teknikoen konponketa eta eguneraketak. Jarduera osagarriak dira komunikazioa, hezkuntza-jarduerak eta sustapena, balio-proposamena sendotzeko.